

## JABETZA INTELEKTUAL ETA INDUSTRIALAREN GIDA

Eskubide mota desberdinen eremuan mugitzen gara, eta eskubide horiek sorkuntza-iturri bera dute, giza adimena.

Eskubide horiek bi multzo handitan sailkatu daitezke:

- 1) Jabetza intelektualaren eskubideak edo egile-eskubideak.
- 2) Jabetza industrialaren eskubideak, zeinak beste bi taldetan sailkatu daitezkeen:

2.1. Zeinu bereizgarriak

2.2. Asmakizunak

Bi multzo handi horien funtsezko desberdintasuna babesaren xedea da, baina baita, ikusiko dugun moduan, eskubidea sortzeko modua ere.

Lehen unetik azpimarratu behar da ez direla eskubide bateraezinak, baizik eta eskubide independente eta metagarriak; hau da, adibidez, margolan batek egile-eskubideen babesaren izan dezake, eta, aldi berean, marka bat izan daiteke kamiseta baten etiketan erabiltzen bada enpresa-jatorriko identifikatzaile gisa. Hala ere, diseinu edo marrazki industrialak ere izan daitezke, adibide berari jarraikiz, kamisetan erabiltzen bada estanzazio gisa.

Ukiezin horiek babesteko erabaki onena aditu batengana jotzea da. Jabetza industrialaren agente ofizial batengana. Profesional horiek hobeto aukeratuko dute babes-estrategia, eta kostuak, denbora eta ezusteko desatseginak aurreztuko dituzte gure produktuak aurkeztu eta merkaturatzean.

Aurrekoa osatzeko, zeinu ezaugarriak eta asmakizunak ez diren beste ukiezin batzuk aipatuko ditugu laster; horiek ere babesaren merezi dute oraindik ere berria den enpresa-sektorearen legearen bidez.

## 1- JABETZA INTELEKTUALAREN ESKUBIDEAK

Gure ordenamenduan jabetza intelektualari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako Errege Dekretuak arautzen ditu funtsean, gai horretako indarreko lege-xedapenak arautu, argitu eta bateratzen baititu.

Literatura-, arte- edo zientzia-obra baten jabetza intelektualak egileari dagokio, obra egiteagatik. Erregistroko inskripzioak adierazpen-ondorioa baino ez du, ez eratzailea: Gertaera sortzailea ez da erregistroan inskribatzea, obra sortzea baizik.

Jabetza intelektualaren xedea dira literatura-, arte- edo zientzia-sorkuntza **originalak**, edozein bitarteko edo euskarritan, ukigarriak nahiz ukiezinak, egungoak edo etorkizunekoak, besteak beste hauek:

Liburuak, eskuorriak, inprimakiak, gutun-liburuak, idatziak, hitzaldiak eta mintzaldiak, konferentziak, txosten forentseak, katedra-azalpenak eta izaera bereko obra oro.

Musika-konposizioak, hitzekin edo gabe.

(...)

Eskulturak, margolanak, marrazkiak, grabatuak, litografia, istorio grafikoak, komikiak, entsegu edo zirriborroak eta gainerako obra plastikoak, aplikatuak edo ez.

Arkitektura- eta ingeniari- obretako proiektu, plano, maketa eta diseinuak.

Topografiarekin, geografiarekin eta oro har zientziarekin lotutako grafiko, mapa eta diseinuak.

Obra fotografikoak eta prozedura analogoekin egindakoak.

Ordenagailu-programak.

Jabetza intelektualak eskubide pertsonalek eta ondare-eskubideek osatzen dute, eta egileari obra ustiatzeko eskubide esklusiboa ematen diote, legean ezarritako mugekin.

Lehenak besterenezinak dira, eta "eskubide moral" gisa ere ezagutzen dira: obraren egiletza materialaren aintzatespena eta osotasun-eskubidea dira.

Bigarrenek, izenak adierazten duen moduan, barne hartzen dute obraren ustiaketa komertziala.

Eskubide horiek, oro har, 70 urteko iraupena dute, egilea hiltzen denetik zenbatzen hasita, dagokien erregistroan inskribatuta egon ala ez. 1886ko irailaren 9an sinatu zen literatura- eta arte- obrak babesteko Bernako Hitzarmena, eta Berlinen (1908ko azaroaren 13an) eta Erroman (1928ko ekainaren 2an) berrikusi zen ondoren. Lurralde-irismen unibertsala du, Espainiako

Estatuaren ordenamendu juridikoak eskubidea aintzatesteak Hitzarmena sinatu zuten gainerako herrialdeek ere aintzatestea ekarriko lukeelako.

**AHOLKUAK:**

Jabetza intelektualaren erregistroan inskribatzeak ez du eskubiderik sortzen, eta konplexua izan daiteke; beraz, gero eta ohikoagoak dira beste aukera batzuk, besteak beste obra jasotzeko notario-akta bat egitea edo dibulgazio-froga osatzen duten erakunde pribatuetara jotzea, batzuetan *blockchain* teknologien bidez.

## 2- JABETZA INDUSTRIALAREN ESKUBIDEAK

### 2.1 ZEINU BEREIZGARRIAK

Markez ari gara bereziki, nahiz eta, ikusiko dugun moduan, Espainiako ordenamendu juridikoan beste figura bat dagoen, izen komertziala. Ezagutzeko interesgarriak diren beste marka mota batzuk ere aipatuko ditugu.

Egile-eskubideekiko lehen desberdintasun handia zera da, marken kasuan erregistroan eskubidea sortzen duela, salbuespenen batekin. Hau da, zeinu baten erabilerak ez dakar eskubidea aintzatestea. Nahitaezkoa da erregistroan behar bezala inskribatzea.

Zeinu bereizgarri bat libreki erabili daiteke, betiere erabilerak ez badu sektoreko arau bat urratzen (etiketatze-araudiak garrantzia berezia izan dezake hemen), eta betiere ez badu hirugarren baten eskubide eskusibo bat kaltetzen. Baina, erabilerari hori legitimatu nahi bada (*ius utendi*) eta hirugarrenek antzeko zeinu bat edo zeinu nahasgarri bat erabiltzea ekidin nahi bada (*ius prohibendi*), ezinbestekoa da hura erregistratzea.

Markak osatu ditzakete zeinu guztiek, bereziki hitzek, pertsonen izenak barne, marrazkiek, letrek, zifrek, koloreek, produktuaren formak edo bilgarriak eta soinuek, betiere zeinu horiek egokiak badira honako honetarako:

- a) Enpresa baten produktu edo zerbitzuak beste enpresa batzuenetatik bereiztea.
- b) Marken erregistroan jasotzea, agintaritza eskudunek eta publiko orokorrak titularrari emandako babesaren xede argi eta zehatza ezagutu dezaten.

Marken zuzenbidea osatzen duten araudiek hainbat zeinu ezartzen dituzte; lege-aginduagatik, merkatuko operadoreek ezin dituzte horiek monopolizatu. "Erregistro-debeku absolutuak" dira, eta beti aztertu behar dira markarekin lotutako produktu eta zerbitzuei begira.

Ohikoenak diren debekuak aplikagarriak dira zeinu orokorretan, deskribatzaileetan, engainagarrietan edo legearen nahiz ohitura onen aurkakoetan.

Marka bat erregistratzea administrazio-prozedura da, eta nahiko luzea eta konplexua izan daiteke topatu ditzakegun oztopoen arabera.

Marka esleitzeak, hau da, erregistratzeak, ez dakar monopolio absolutu bat lortzea, eskubide horiek hiru muga baitituzte:

- Denbora-mugak: lege-bizitza mugatua duten eskubideak dira, baina modu mugagabeen luzatu daitezke.
- Lurralde-mugak: inskribatutako herrialdean edo herrialdeetan ondorioak dituzten eskubideak dira (ez dago estatuz azpiko erregistrorik). Beraz, ia berdinak diren bi marka egon daitezke jurisdikzio desberdinetan, ñabardura batzuekin.
- Aplikazio-mugak: marka bat erregistratzean, aldarrikatu behar da zein produktu edo zerbitzuetarako lortu nahi den eskubide eskusibo hori, eta nazioarteko arau batekin bat sailkatu behar dira, guztia 45 motetan (Nizako sailkapena); hala ere, badaude barneko sailkapen-araudi propioa duten herrialdeak. Ia berdinak diren bi marka merkatu berdinean egon daitezke, bat egiten ez duten bi jarduera-sektoretakoak badira.

Denborari dagokionez, lege-bizitzaren epea ezin du eskatzaileak hautatu. Legean ezartzen da, eta 10 urtekoa izaten da, eskaera-datatik hasita. Edonola ere, modu mugagabeen luzatu daitezke.

Lurraldeari dagokionez, marka eskubide mugatua dela dioen ideia azpimarratu behar da. Hala ere, edozein unetan hedatu daiteke marka bat lurraldean, zeinuak intereseko lurraldean duen eskuragarritasunaren muga bakarrarekin.

Tokiko markez gain, aurretik adierazi dugun moduan, interesgarria da figura bat azpimarratzea, Europako edo Batasuneko marka, zeinaren bidez erregistro bakar batekin babesa lortu dezakegun EBren 27 herrialde kideetan, Espainiako Estatuan barne.

Nahiz eta Batasuneko markak aukera ona dirudien beti Europako hainbat merkatutan jardun nahi izanez gero, figurak arazoak ere izan ditzake, eta, ondorioz, beharrezkoa da kontuan hartzea egungo beharrak eta epe laburreko (5 urte) negozio-plana, marka mota horren egokitasuna edo beste erregistro-aukera batzuk baloratzeko.

Ezagutzea komeni den beste figura bat nazioarteko marka da. Munduko merkataritzaren % 80tik gora ordezkatzan duten herrialdeek sinatutako bi nazioarteko tratatuk osatzen duten sistema da, eta haren xedea da marken nazioartekotzea merkatu eta sinplifikatzea.

Aplikazioari dagokionez, beharrezkoa da kontuan hartzea Nizako sailkapena zehaztu eta doitzearen beharra, batez ere European, IP TRANSLATOR izenez ezagutzen den EBJaren epaiaren ondoren.

Aurretik adierazi dugun moduan, Espainiako ordenamendu juridikoak barne jartzen du beste figura bat, izen komertziala, alegia.

Izen komertziala da grafikoki irudikatu daitekeen zeinu oro, enpresa bat identifikatzen duena merkataritza-trafikoan. Antzekoak edo berdinak diren jarduerak egiten dituzten gainerako enpresetatik bereizteko balio du.

Figura juridiko bat edo beste aukeratzea, edo bien konbinazioa, zeinuari emango diogun erabileraren arabera da produktu eta zerbitzuak bereizteko edo enpresa bat bereizteko merkaturan jartzen dituen produktu eta zerbitzuei dagokienez.

#### **AHOLKUAK:**

Funtsezkoa da erregistro-babeseko estrategia egokia zehaztea, aktibo horiek behar bezala babesteko; izan ere, askotan enpresaren balio nagusia dira. Jabetza industrialaren agenteak dira estrategia hori zehazten eta prozedura aurrera eramaten lagundu diezaguketen adituak.

Zeinu orokor edo deskribatzaile bat aukeratzeak ideia ona dirudi merkaturan azkar posizionatzeko; izan ere, publiko hartzaileak errazago gogoratuko du, eta hobeto kokatuko da webgunearen SEO delakoan. Hala ere, zeinu horiek monopolizatzeko ezintasunaren ondorioz, ezinezkoa izango da hirugarrenei haien erabilera ukatzea; hau da, baliteke hirugarrenek gure lana, entzutea eta *goodwill* delakoa aprobetxatzea.

Aurretiazko erregistro-azterlan bat (ez da nahastu behar marka-bulegoek euren webguneetan erabiltzaileen esku jartzen dituzten marka erregistratuen erreserba-zenbakien erabilerarekin) egiteak aukera emango digu ziurtatzeko zeinuaren erabilerak, baita erregistratu ondoren ere, ez duela arazorik izango, eta gure marka babesteko estrategia zuzenaren parametroak finkatuko ditugu.

Ezinbestekoa da jakitea marka-bulego askok ez dutela eskumenik inskribatutako eskubideak babesteko: hau da, ezin dute eskaera bat ezetsi aurretik hirugarren baten alde inskribatutako marka bat dagoelako. Horretarako, beharrezkoa da argitaratuko diren eskaera berriak hautemateko prest egoteko bitarteko teknikoak eta giza bitartekoak hornitzea, ahalik eta azkarren erreakzionatzeko. Jabetza industrialaren agenteek tresna horiek dituzte, eta euren ordezkarien eskura jartzen dituzte.

#### **Informazio gehiagorako webguneak:**

[www.oepm.es](http://www.oepm.es)

[ww.euipo.eu](http://ww.euipo.eu)

[www.wipo.int](http://www.wipo.int)

**Oinarrizko araudia:**

17/2001 Legea.

2017/1001(EB) Erregelamendua.

Madrilgo Akordioa, marken nazioarteko erregistroari buruzkoa, 1891ko apirilaren 14koa, Stockholmen berrikusia 1967ko uztailaren 14an.

Marken nazioarteko erregistroari buruzko Madrilgo Akordioaren protokoloa, 1989ko ekainaren 27koa.

## **2.2. ASMAKIZUNAK**

Eskubide mota horien barruan bereizketa bat egingo dugu:

Asmakizunak, eta haien barruan asmakuntza-patenteak eta erabilgarritasun-ereduak jorratuko ditugu.

Forma-soluzioak, nahiz eta agian ez den terminologia egokiena; diseinu industrialaren figura osatzen dute.

### **2.2.1 ASMAKUNTZA-PATENTEA**

Espainiako ordenamendu juridikoan asmakuntza-patenteen definizio positiboa topatzen dugu. Legearen arabera, teknologiaren eremu guztietan berriak diren, asmakuntza-jarduera dakarten eta industrian aplikatu daitezkeen asmakizun guztiak patentatu daitezke.

RAE hiztegiaren arabera, asmakizun bat *“asmatzen den ekintza eta efektua da”*, eta aditza honela definitzen du: *“berria eta ezezaguna den zerbait aurkitu edo deskubritzea”*.

Asmakuntza-patente bat jabetza industrialaren titulu bat da, eta haren titularrari eskubidea ematen dio memorian eta aldarrikapenetan deskribatutako soluzio teknikoa ustiatzeko.

Erregistroan inskribatzeak monopolio teknologiko hori eratzen du; hau da, printzipio orokorra da eskusiba-eskubide batek babesten ez dituen besteren prestazioen imitazio askea. Eta eskubide hori dagokion erregistroan inskribatuta lortzen da.

Asmakuntza-patenteen baldintzak berritasuna, asmakuntza-altuera eta aplikazio industrialak dira, aurreko legezko definizioan jasotzen den bezala.

Asmakizun bat berritzaletzat jotzen da teknikaren egoeraren barruan ez dagoenean.

Patente-eskaera aurkeztu aurretik jendeak munduko edozein lekutan idatzizko edo ahozko deskribapenen, erabilera baten edo beste edozein bitartekoren bidez eskuragarri izan duen orok osatzen du teknikaren egoera.

Dibulgazio propioak berritasunaren betekizuna deuseztatzen du; hau da, berritasunaren betekizuna hautsiko litzateke asmatzaileak berak, eskaera egin aurretik, asmakuntzaren edukia zabalduko balu. Adibidez, soluzio teknikoa osatzen duen produktua merkaturatzeagatik.

Asmakizun batek asmakuntza-jarduera bat dakar berekin, baldin eta asmakizuna ez bada teknikaren egoeratik eratortzen nabarmen gaian aditua den batentzat.



Gaian aditua denaren edo nabarmena denaren definizioa berritasuna baino subjektiboagoa da, eta kontzeptu juridiko zehaztugabe horiek zehazten saiatzen dira doktrina eta jurisprudentzia.

Uste da asmakizun bat industrian aplikatu daitekeela haren xedea edozein industrian (nekazaritza barne) fabrikatu edo erabili daitekeenean.

Patente bat erregistratzeak administrazio-prozedura bat gainditzea dakar, non dagokion patente-bulegoak egiaztatuko duen eskaerak berritasunaren, asmakuntza-altueraren eta aplikazio industrialaren baldintzak betetzen dituela. Prozedura luzea eta konplexua denez, interesdunari iradokitzen diogu gaian adituak direnengana jotzea. Jabetza industrialaren agente batengana. Are gehiago memoria bat oker idaztearen ondorioz ezinezkoa bada asmakizuna babestea, berritasunaren baldintza urratzen bada, eskaera argitaratu edo produktua aurkeztu ondoren.

Lurraldeari dagokionez mugatuta dagoen eskubide baten aurrean gaude berriro. Hau da, eskubide horrek benetan inskribatuta dagoen herrialdean edo herrialdeetan izango ditu ondorioak soilik.

Patente-eskaera bat lehenengoz aurkezten denetik, 12 hilabete luzaezineko epea dago eskaera beste jurisdikzio batzuetan egiteko (lehentasuna). Epe hori igarotakoan, berritasunaren betebeharrak ziur asko eraginak izango ditu interesgarriak izan daitezkeen beste jurisdikzio batzuetan.

Lagunartean "munduko patente" gisa ezagutzen dena Nazioarteko Tratatu (PCT) bat besterik ez da, eta horren bidez tratatuaren parte direnen artean izendatutako herrialdeetan eskubidearen itxaropen moduko bat dago, lehenengoz aurkezten denetik guztira 30/31 hilera arte.

PCT eskaera aztertuko duen Patenteen Bulegoak asmakuntzaren patentagarritasun-betebeharrak betetzen direla aztertuko du, baina ez du eskumenik eskaera onesteko edo ukatzeko. Dagokion epea igarotakoan, "faseetan sartu" beharko da. Nahi den jurisdikzio bakoitzean izapidetzen jarraitzea, eta aplikatu beharreko araudi berriaren arabera; gainera, patentagarritasun-betebeharrak betetzeari buruzko azterketa berriak eskatu ahalko zaizkio.

Ezagutu beharreko beste figura bat Europako Patentea da, baina ez du zerikusirik Europako Markekin, besteak beste haren erregulazioa ez delako Erkidegoko eskubide bat. Nazioarteko Tratatu bat da.

Europako Patenteak berarekin dakar tratatuaren parte diren izendatutako herrialdeetarako izapidetze komun bat egitea, baina aurreko figurakoak ez bezala, aztertzaileak erabakiko du eskaera onesten edo ukatzen den. Eta, Europako patentea emanez gero, "baliozkotu" egin beharko da, ondorio osoak izan ditzan eskaeran izendatutakoen artetik interesatzen zaizkion herrialdeetan; herrialde horiek ez dute beste azterketarik egingo, azterketa Patenteen Europako Bulegoari (PEB) eskuordetu diotelako.

Oro har, asmakuntza-patente batek 20 urte luzaezineko lege-bizitza du gehienez, eta mantentze-tasa bat ordaindu behar da urtero. Gehienezko lege-bizitza igarotakoan edo patentea iraungitakoan mantentze-tasak ordaintzen ez direlako, patentearen edukia jendaurrean jarriko da. Merkatuko edozein operadorek erabiltzeko moduan geratuko da.

Era beran, beste jurisdikzio batera zabaldu gabeko patente bat bertan parte hartzera igarotzen da teknikaren egoerari dagokionez. Hirugarren batek, normalean, ezingo du soluzio bera patentatu (ez luke berritasunik izango), baina praktikan jarri ahal izango du mugarik gabe eskubidea inskribatuta ez dagoen jurisdikzioaren barruan.

Figura juridiko horren bidez babestu ezin daitezkeen gaiak. Besteak beste, landare-barietateak eta animalien arrazak, nahiz eta landareak eta animaliak xede dituzten asmakuntzak patenta daitezkeen, asmakuntzaren bideragarritasun teknikoak ez bada mugatzen landare-barietate edo animalia-arraza jakin batera.

Aurrekoa gorabehera, **LANDARE-BARIETATEAK** babesteko xede dira, asmakuntza-patentea ez den bestelako figura juridiko baten, eta, halaber, beste erregistro batean inskribatzen denaren bidez.

Landare-barietate gisa ulertzen da ezagutzen den maila baxuenaren taxon botaniko bakarreko landareen multzoa, sortzaileen (barietate bat edo horren kausadunak sortu edo aurkitu eta garatu dituen pertsona) eskubide bat emateko baldintzei osorik erantzutea edo ez erantzutea gorabehera, hau egin badaiteke:

- a) Genotipo jakin baten edo genotipoen konbinazio jakin baten ondoriozko izaeren adierazpenaren bidez definitu.
- b) Izaera horietakoren baten adierazpenagatik beste edozein landare multzotatik bereizi.
- c) Unitate gisa hartu, alteraziorik gabe ugaltzeko dituen gaitasunak kontuan hartuta.

Landare-barietateak berria, desberdina, homogenea eta egonkorra izan behar du:

Barietatea berritzaile joko da, baldin eta, landare-titulua lortzeko eskaera aurkezten denean, sortzaileak landareen ugalketa- edo biderketa-materiala edo barietatearen uztaren produktu bat ez badie saldu edo eman hirugarrenei, edo sortzailearen baimena eman barietatea ustiatzeko edo, hala izanik, zenbait epea jakin igaro ez badira; hau da, nolabait dibulgazioa berak baliteke kalterik ez egitea eskaera epe jakin batzuetan aurkezten bada.

Barietatea desberdintzat joko da genotipo jakin baten edo genotipoen konbinazio jakin baten ondoriozko ezaugarrien adierazpenaren bidez argi eta garbi desberdindu badaiteke beste edozein barietatetatik, zeinaren existentzia, eskaera aurkezten denean, aski ezaguna bada.

Barietatea homogeneotzat hartuko da nahikoa uniforme bada bere ezaugarri espezifikoetan, ugalketa sexudunaren edo landare-biderketaren zehaztasunak kontuan hartuta aurreikus daitekeen barietatea salbuetsita.

Barietatea egonkortzat joko da bere ezaugarri espezifikoak alteraziorik gabe mantentzen badira ondoz ondoko ugalketen edo biderketen ondoren, edo, ugalketen edo biderketen ziklo berezi baten kasuan, ziklo bakoitzaren amaieran.

Barietatearen erregistroaren bitartez sortzaileari emandako eskubidea patente baten titularrak duenaren antzekoa da. Barietatearen erabilera monopolizatzea 25-30 urtetan, barietate motaren arabera (aihena edo zuhaizkara).

Halaber, lurraldeari dagokionez mugatutako eskubideak dira, eta EB osoan ondorioak izateko inskripzio bakarra egiteko aukera dago.

Landare-barietate bat inskribatzea, halaber, prozedura konplexua da, eta are errazago aurre egin ahal izango diogu gaian aditu batek lagunduta egiten badugu.

### **2.2.2 BALIAGARRITASUN-EREDUA**

Figura hori ez dago herrialde guztietan, baina Espainiako Estatuan bai.

Baliagarritasun-eredu gisa babestu ahal izango dira industrian aplika daitezkeen asmakuntzak, baldin eta berriak badira edo asmakuntza-jarduera badakarte beraiekin eta objektu edo produktu bati konfigurazio, egitura edo osaera bat ematen badiote, erabiltzeko edo ekoizteko praktikoki antzeman daitekeen abantailaren bat ekarriko diona.

Baliagarritasun-eredu gisa babes daitezkeen asmakuntzen berritasuna eta asmakuntza-jarduera epaitzeko kontuan hartu behar den teknikaren egoera asmakuntza-patenteetarako ezarritakoaren berdina izango da. Mundu-mailako berrikuntza.

Baliagarritasun-eregu gisa babesteko, kontuan hartzen da asmakuntza batek asmakuntza-jarduera bat dakarrela berarekin, gaian aditu batentzat teknikaren egoeraren ondoriozkoa ez bada era oso nabarmenean.

Figura horretan, asmakuntza-jardueraren eskakizuna patenteetarako baino txikiagoa da.

Baliagarritasun-eredua lortzeko ez da azterketarik egiten patentagarritasun-baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, baina azterketa hori nahitaezkoa da arau-hausteengatik hirugarrenen aurka ekintzak egin nahi badira.

Baliagarritasun-eredu gisa eskatutako asmakuntza bat emango da betebeharrak formalak betetzen direnean, berritasun-falta agerikoa ez denean eta izapidetzean hirugarrenek eragozpenik ez dutenean.

Tituluaren gehienezko lege-bizitzaren epea 10 urtekoa da oro har, eta urtero tasak ordaindu behar dira indarrean egon dadin.

Inskribatzen den herrialdean soilik ditu ondorioak, eta, era berean, 12 hileko gehienezko epea izango du beste herrialde batzuetara zabaldu ahal izateko. Nazioartekotzeko.

Kontuan izan behar dugu memoria gaizki idazteak ere berritasunaren betebeharra baliogabetu dezakeela; hortaz, guztiz ezinbestekoa da jabetza industrialeko aditu batengana jotzea, behar bezala aholka gaitzan eta memoria idazteaz eta izapidetze osoan laguntzeaz ardura dadin.

#### **FIGURA HORIETARAKO AHOLKUAK:**

Soluzio bat patentagarria izateak (asmakuntza-patentea edo baliagarritasun-eredua) ez du esna nahi praktikan jar daitezkeen hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe.

Espainiako Estatuan garatutako asmakuntzak OEPM erakundearen aurkeztu behar dira, herrialde horretan ondorioak eduki ahal izateko eragozpenik gabe.

Mito bat da edozein aldaketa txikirekin patente bat lortu ahal izatea. Patente edo baliagarritasun-eredu bat urratu egin daiteke bere aldarrikapenetan deskribatutako ezaugarri teknikoak egiteagatik; guztiak ez egiteagatik, ezaugarri baliokideengatik ordezkatu baizik; edo zeharkako arau-hauste batengatik (adibidez, medikamentu babestu bat ez saltzea, haren osagaiak baizik medikamentua nola egin behar den dioen errezetarekin batera).

**Informazio gehiagorako webguneak:**

[www.oepm.es](http://www.oepm.es)

[www.epo.org](http://www.epo.org)

[www.wipo.int](http://www.wipo.int)

[www.mapa.gob.es](http://www.mapa.gob.es)

[www.cpvo.europa.eu](http://www.cpvo.europa.eu)

**Oinarrizko araudia:**

24/2015 Legea, patenteena.

Municheko Tratatua, Europako patenteak emateari buruzkoa, 1973ko urriaren 5koa.

Patenteen arloan Lankidetzaren Jarduteko Tratatua (PCT), 1970ko ekainaren 19koa.

3/2000 Legea, landareak lortzekoa.

2100/94 (EB) Erregelamendua, landareak lortzeko testu bateratua.

### 2.2.3 DISEINU INDUSTRIALA

Diseinu industrial batek, lehen modelo edo marrazki industrialak deitzen zirenak bi edo hiru dimentsiokoak izatearen arabera, produktu baten osotasunaren edo zati baten itxura eskusiboa eta baztertzaila aldarrikatzen du, bereziki, produktuaren beraren edo apainduraren lerro, inguru, kolore, forma, testura edo materialen ezaugarrietatik eratortzen dena.

Diseinua erregistratzeak ez du inolako eskubiderik emango produktuaren funtzio teknikoaren arabera soilik emandako itxurazko ezaugarrien gainean.

Diseinu berriak eta izaera berezia dutenak erregistratu ahal izango dira.

Diseinu bat berritza hartuko da beste diseinu berdina bat jendearentzat eskuragarri jarri ez denean eskaera aurkeztu den eguna baino lehenago.

Dibulgazioak berak ez dio berritasunari eragiten, baldin eta lehenengo dibulgazioaren eta diseinuaren eskaeraren artean ez badira 12 hilabetetik gora igaro.

Diseinu berdintzat joko dira xehetasun hutsaletan soilik desberdintzen diren ezaugarriak dituztenak.

Diseinu batek izaera berezia duela ulertuko da, baldin eta informatutako erabiltzailearengan sortzen duen inpresio orokorra ez badator bat eskaera aurkeztu aurretik jendeak eskuratzeko moduan jarri den beste edozein diseinuk erabiltzaile horrengan sortutako inpresio orokorrarekin.

Diseinuak izaera berezia duen zehazteko, diseinua garatzeko egilearen askatasun-maila hartuko da kontuan.

Berrito ere, lurraldeak mugatutako eskubideak dituzte, baina eskaera lehenengoz aurkeztu denetik 6 hilabete izango ditugu diseinua beste jurisdikzio batzuetan babestu ahal izateko. Ondoren, berritasunaren betebeharran izango du eragina.

Oro har, lege-bizitzaren epea 25 urtekoa da gehienez; luzaezinak dira eta mantentzeko ordainketak egin beharko dira bost urtean behin.

Espanian eta European ez dira aztertzen diseinu-eskaerak berritasun- edo berezitasun-betebeharrak betetzeari dagokionez. Azterketa formal bat egiten da eta eskubidea ematen dela argitaratzen da, gero hirugarrenek erabaki horren aurka eragozpenak aurkeztu edo baliogabetzeko ekintzak egin ahal izatea gorabehera.

Markekin gertatzen den moduan, European figura bat dago: Erkidegoko diseinua. Erregistro bakarra da, EBko 27 estatu kideetan eta, ondorioz, baita Espainian ere, erabateko ondorioak izango dituena.

Gainera, haren araudian, interesgarria izan daitekeen azpifigura bat aurki dezakegu: Erkidegoko diseinu ez-erregistratua.

Marraskia edo modelo Erkidegoaren barruan lehenengoz jendaurrean jartzen denetik aurrera hiru urteko epean, erregistroan inskribatu behar izan gabe, diseinua babestuta egongo da kopien aurrean. Hau da, identitatea eskatzen da produktuaren eta diseinu ez-erregistratuaren artean, eta hirugarrena ez dela soluzio berera iritsi bere ahaleginagatik. Kopia bat izatea.

Marketan bezala, nazioarteko diseinuak daude nazioartekotzeko figura juridiko gisa, eta kostuak merkatu- eta eskaera-baldintzak sinplifikatu ditzake.

#### **AHOLKUAK:**

"Erkidegoko diseinu ez-erregistratua" badagoen arren, oso komenigarria da komertzialki interesgarriak izan daitezkeen diseinuak babestea.

Figura horretarako proba daiteke merkatuak diseinuarekiko duen erantzuna, bilduma osoetan xede den publikorentzat interesgarrienak diren aldagaiak soilik erregistratzeko.

#### **Informazio gehiagorako webguneak:**

[www.oepm.es](http://www.oepm.es)

[ww.euipo.eu](http://ww.euipo.eu)

[www.wipo.int](http://www.wipo.int)

#### **Oinarrizko araudia:**

20/2003 Legea.

6/2002 (EB) Erregelamendua.

Hagako Akordioa, marrazki eta modelo industrialen nazioarteko erregistroari buruzkoa.

### 3- ENPRESA-SEKRETUA

1/2019 Lege berriarekin nolabait babestu nahi dira arestian aipatutako figurek babesten ez dituzten ukiezinak, hala nola *know-how* delakoa, ez baita patente baten xedean sartzen, baina enpresa-ustiapena erraztu baitezake.

Lege-arau horrek ez ditu aurrekoak ordezkatzeko, osatu baizik, eta enpresa-sekretutzat joko da edozein informazio edo ezagutza, baita teknologikoa, zientifikoa, industrial, komertziala, antolakuntzakoa edo finantzarioa, baldin eta honako baldintza hauek betetzen baditu metatuta:

a) **Sekretua izatea**, osorik edo osagaien beharrezko osaeran eta biltzean, informazio edo ezagutza mota hori normalean erabiltzen den zirkuluetako pertsonen orokorrean ez ezagutzearen eta haietzako erraz eskuratzeko modukoa ez izatearen zentzuan.

b) **Enpresa-balioa izatea**, dela erreal dela potentziala, hain zuzen ere, sekretua izateagatik. Hau da, enpresari lehiatzeko abantaila ematea.

c) **Zentzuzko neurriak ezarri izana**, titularraren eskutik, **sekretua izaten jarraitzeko**.

Erregistroz kanpoko babes horren titulartasuna legez sekretu horren gaineko kontrola gauzatzen duen pertsona fisikoari edo juridikoari dagokio. Eta hark egin beharko du barne-gogoeta bat sekretu-izaera izan dezakeena eta gainera abantaila bat dakarrena zer den zehazteko, eta, aurreko inguruabarrak kontuan hartuta, sekretuari eusteko beharrezkoak diren neurriak hartu beharko ditu.

Hona hemen neurri horietako batzuk:

Konfidentzialtasun-akordioak (NDA) sinatzea hornitzaile, bezero, kanpoko kolaboratzaile, eta abarrekin.

Korrespondentzia eta komunikazioak markatzea (adibidez, ur-marka batekin) konfidentziala dela adierazteko.

Lan-kontratuetan konfidentzialtasun-klausulak sartzea.

#### **AHOLKUAK:**

Enpresa-sekretuak ez du jabetza industrialordezkatzeko. Hartatik kanpo dauden edukietan osatzeko da.



Patentatu daitekeen asmakuntza bat sekretu bidez babesten saiatzeak ez du eragozten hirugarrenek hura babestea. Sekretua denez, ez dago berritasunaren baldintza baliogabetzen duen aurretiko dibulgaziorik, eta, beraz, hirugarrenaren eskaera erregistroan sartu ahal izango da.

Gainera, hirugarren bat ezagutza berera iristen bada sekretua legez apurtzen duelako (adibidez, behaketa bidez edo alderantzizko ingeniartzaren bidez) edo bere ikerketa-bultzadaren beraren emaitza delako, ezingo da ezer egin hirugarren horren aurka, arau honen babesean.

**Oinarrizko araudia:**

1/2009 Legea.

3/1991 Legearen 13. art. indargabetua.